

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

“Bultzada Ekintzailea” ekimenaren seigarren edizioa ireki da enpresa proiektu berritzaileak bultzatzeko

Apirilaren 27a arte irekita egonen den deialdi berri honetan, bederatzi proiektu ere hautatuko dira.

Astelehena, 2018.eko martxoak 12

Nafarroako Gobernuak “Bultzada Ekintzailea” programaren seigarren edizioa abiarazi du, bederatzi enpresa-proiektu berritzaile berriak azelerazio-programa, aholkulariak eta negozio-ideien garapena bizkortu eta gure komunitatean enpresa berrien sorrera errazteko diru-kopuru bana emateko asmoz. Deialdirako inskripzioak aurkezteko epea apirilaren 27an bukatuko da.



CEINeko kontseilaria eta Ayerdi lehendakariordea, enpresa babesleen ordezkariak.

Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdik deialdi berria aurkeztu du astelehen honetan, eta ekitaldian harekin batera izan dira Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Zentro Europarreko (CEIN) kontseilari ordezkari Pilar Irigoien eta lankidetzahitzarmenak sinatu dituzten enpresa babesleen ordezkariak.

Edizio honetan Caja Rural de Navarra, Cinfa, Mondragon Korporazioa, Correos, Inycom, MTorres, Mutua Navarra, Uscal eta Viscofan dira babesleak, aurreko edizioetako enpresa laguntzaile berberak. Proiektu bakoitzak babesleek emandako 8.000 euroko laguntza bana jasoko dute. Gainera, berritasun gisa, aurtan, konpainia guztiak parte-hartzaileen esanetara egonen dira aholkulari lanetan.

CEINek, bestetik, berriak enpresa-azelerazio programa eskainiko die hautaturiko bederatzi proiektuei, negozio-eredua garatu eta kontrastatzeko eta enpresa-jarduera ahalik eta bermerik handienarekin bideratu ahal izateko.

Ekimen parte-hartzaileek “Bultzada Ekintzailearen” aurreko edizioetatik sortutako Black Binder, InnoUp Farma, iAR eta Up Technologies enpresen laguntza izanen dute. Enpresa horiek negozio berri bat definitu eta gauzatzerakoan bildu duten esperientzia guztia eskainiko diete.

Era berean, banakako tutoretzak jasoko dituzte, CEINeko Berrikuntza

Haztegian instalatu ahalko dira 6 hilabetez doan, eta Sodenaren finantzaketa jasotzeko lehentasuna izango dute.

Ayerdi lehendakariak nabarmendu duenez "Bultzada Ekintzailea" zortzigarren postuan dago Estatuko 70 azeleragailuren baino gehiagoren artean, Aurrezki Kutxen Fundazioak (Funcas) eta Rey Juan Carlos Unibertsitateak landutako "Enpresa haztegiek Espainian eskaintzen dituzten zerbitzuak. 2016/2017 Rankinga" txostenaren arabera. Zerrendako lehendabiziko postuan Sodenako Orizont nekazaritzako eta nekazaritza-elikagaigintzako azeleragailua dago.

Hitzarmena sinatu ondoren, Ayerdi enpresa babesle eta laguntzaileen ordezkariari zuzendu zaie, "proiektuak hasiera-hasieratik lankidetzara publiko-pribatua bultzatzearen alde egin duen apustua" gogora ekarriz. "Kasu honetan, CEIN enpresa publikoaren eta honen azelerazio-metologiaren eta zuenak bezalako ibilbide luzeko enpresa babesleen arteko aliantza sustatu nahi dugu", esan du.

Bestalde, CEINeko kontseilari ordezkari Pilar Irigoienek deialdira bilduko diren enpresa sortu berriak aipatu ditu: "Badakigu bultzada ekintzailean parte hartzeko prozesuak merkatuko errealitate bideratuko dituela, negozio-eredu sendo eta bideragarriak erraztuz. Laburbilduz, enpresa berrien sorrera ahalik eta bermerik handienekin egiten lagunduko dugu."

Hautagaitzak, apirilaren 27a arte

Programa jatorria edozein izanda ere ekintzaileak diren pertsonentzat da, berrikuntza-proiektu bat dutenak, hazteko ahal dutenak eta Nafarroan errealitate bihurtu nahi dutenak.

Parte hartzeko interesa duten pertsona ekintzaileek honako webgune honetan eskura daitekeen formularioa bete behar dute: <http://www.cein.es>. Hautagaitzak aurkezteko epea apirilaren 27an bukatuko da.

Eskaera guztiak jasotzen direnean, CEINen ebaluazio-batzorde batek lehen aurrehautaketa bat egingo du 20 proiektuekin gehienez. Aurrehautaketa hori ondorengo irizpideetan oinarrituko da, esaterako: talde ekintzailea, negozio-ereduaren azterketa, hazteko ahala, berrikuntza eta betetako helburuak.

Proiektu parte-hartzaileen azken hautaketa maiatzaren 29rako iragarrita dago; une horretan, hautatutako proiektuak bederatzi enpresa babesleek baloratuko dituzte, eta haietako bakoitzak lagunduko duen proiektua hautatu eta programan sartuko da.

Guztira, 708 proiektu aurkeztu dira "Bultzada Ekintzailea" programaren aurreko bost edizioetan, eta 40 proiektuk parte hartu dute. Horietatik 25 enpresa gisa finkatu dira, 111 lanpostu sortu dituztelarik.



Manu Ayerdik akordioa sinatu du enpresa babesleekin.